

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Basauriko Udala****Karnabas 2022-Mozorro-jantzien lehiaketaren eta hobekien girotutako establezimenduaren lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak.**

2022ko urtarrilaren 14ko 2022/87 Alkate Dekretuak onetsi zituen Kultura-politika eta Euskara Arloak antolatutako Karnabas 2022-Mozorro-jantzien lehiaketaren eta hobekien girotutako establezimenduaren lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak, kategoria guztietarako Dekretu horretan bertan ezartzen denaren arabera, oinarri horiek argitaratzea dagokio.

Diru-laguntza lerroa	KARNABAS 2022 sariak ematea
Aurrekontu-partida	92 3382 48099
Partidaren deskribapena	Transferentzia arrunta familiei. JAIK
Zenbatekoa	5.550,00 euro
Diru-laguntza emateko prozedura	Sariak

KARNABAS 2022-OTSAILAREN 25ETIK MARTXOAREN 1ERA

Basauriko Udalak mozorro-jantzien lehiaketa antolatu du, familien, haurren, eta seniorren modalitateetan.

1. Familien mozorro-jantzi lehiaketa**DESKRIBAPENA**

Kategoria bi ditu. Kategoria bakoitzean parte hartu ahal izango dute helduek bakarrik ala helduek eta haurrek osatutako taldeek. Talde barruko mozorroek koherentzia eta uniformetasuna gorde beharko dute.

Kategoriak

- 2-8 kideko taldeak.
- 9 kide edo gehiagoko taldeak.

Behin izena emanda, ez da onartuko taldekideen kopurua aldatzea, baldin eta horrek kategoria aldatzea badakar, hau da: 9 kide ala gehiagoko kategorian izena eman eta desfilera 8 kide ala gutxiago agertzen badira, ala aldrebes, taldea kanporatua izango da automatikoki.

IZENA EMATEA

Lehiaketan parte hartu nahi duten taldeek, aurretiaz eman beharko dute izena.

Izena emateko tokiak eta ordutegiak

Izena eman beharko da otsailaren 14etik 26ra, ondoren adierazitako leku eta ordutegietan:

- Otsailak 14-25 bitartean:

Kultura	Bidearte, 10	Astelehenetik ostiralera, 08:00-14:00

- Otsailaren 26an:

Horretarako jarritako ETXOLA	Solobarria plaza	11:30-13:30



Izena emateko datuak

Talde batek lehiaketarako izena ematerakoan, honako datu hauek adierazi beharko ditu:

- Taldearen izena.
- Zenbat kide.
- Mozorroaren gaia.
- Ordez kariaren datuak (izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia, posta elektronikoa).

Izena ematerakoan adieraziko zaio taldeari zein den lehiaketan parte hartzeko egokitu zaion zenbakia. Zenbaki horrek zehaztuko du desfilean zein tokitan joan behar duten.

LEHIAKETA NOLA EGINGO DEN

A aukera: desfilea

Lehiaketa desfilean zehar egingo da, eta desfilea otsailaren 26an egingo da (larunbata), arratsaldeko 18:00etan.

Parte-hartzaileak elkartzea

- Tokia: Social Antzoki inguruan (San Pedro elizaren ondoko plazan, eta San Fausto plazan).
- Ordua: 17:15.

Antolakuntzako kide batek, desfilea hasi baino apur bat lehenago, oholtxo bat eman dio taldeari, izena ematean egokitu zitzaion zenbakiarekin, eta desfilea hasteko non kokatu beharko diren adieraziko die. Oholtxo horrek taldea identifikatuko du desfilean zehar, bere mozorroak ebaluatu ahal izateko. Oholtxoak berdeak izango dira 2-8 kide dituzten taldeentzat, eta gorriak 9 kideetik gorakoentzat. Ikusteko moduko toki batean eraman beharko dituzte taldeek oholtxook, desfile osoan zehar, epaimahaia ikus ditzan.

Desfilea nola egingo den

Desfilea 18:00etan abiatuko da Social Antzokitik. Parte-hartzaileek, ordurako, eta lehen adierazi bezala, dagokien lekuan kokatuta egon beharko dute, eman zaien zenbakiaren arabera.

Ibilbidea hauxe izango da: Social Antzokia, Nagusia, Nafarroa, Begoñako Andra Mari, Nagusia, Goikosoloa eta Solobarria plazara sartzea.

Desfileak, bestalde, hiru zati izango ditu:

- Lehenengo zatia: karrozak (ez dute lehiaketan parte hartuko):
 - Lehenengo karrozan, Inautxo, Basauriko Inauteriak iragartzen dituen pertsonaia.
 - 3 karroza, zenbait gairen inguruko dekorazioarekin.
- Bigarren zatia: lehiaketako desfilea:
 - Aurrean doazen baina lehiaketan parte hartuko ez duten karrozen atzetik, taldeek desfilatuko dute, beren zenbakiaren hurrenkerari jarraituta, eta eman zaien oholtxoaren daramatela. Garrantzitsua da oholtxoak ikusten diren leku batean eramatea, epaimahaiko kideek talde bakoitza identifikatu, eta behar bezala baloratu dezaten. Lehenengo joango dira 2-8 kideko taldeak (kolore berdea), eta 9tik gorakoak gero (kolore gorria).
- Hirugarren zatia: lehiaketatik kanpoko desfilea:
 - Lehiaketan izena eman ez duten guztiek osatuko dute.
 - Desfilea itxiko dute bertan parte hartu nahi, baina lehiaketarako izenik eman ez duten talde zein norbanakoek.



B aukera: Euria bada, Solobarria plazara

Parte-hartzaileak elkartzea

- Tokia: Social Antzoki inguruan (San Pedro elizaren ondoko plazan, eta San Fausto plazan).
- Ordua: 17:15.

Parte hartuko duten taldeek ordezkari bat izendatuko dute. Ordezkari hori taldeek elkartu behar duten tokira joango da, beste taldeetako ordezkariekin batera, eztabaidatzeko ea desfilea aurrera doan ala lehiaketa Solobarria plazara eramaten den.

Euria bada, ordezkariak erabakiko dute, une horretan, ea desfilearekin aurrera egiten duten ala lehiaketa Solobarriako karpara eramaten den; bigarrenaren alde eginez gero, lehiaketa 19:00etan hasiko da.

Lehiaketa Solobarria plazako karpan izanez gero, nola egin

Parte-hartzaileek karpa barruan desfilatuko dute, hesiekin mugatutako korridore batean zehar. Epaimahaiak, artean, mozorroak kalifikatuko ditu, desfilerako aurreikusitako hurrenkerari jarraituta.

Ikusle asko egongo direnez, eta segurtasuna bermatze aldera, karpara ezin izango da inolako gurgildun tramankulurik sartu. Mojarparteko atarrietan toki bat jarriko da tramankulu horiek uzteko, epaimahaiak horiek ere kalifikatu ditzan.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia gaian adituak direnek eratuiko dute. Epaimahaikideak desfilearen ibilbidean zehar kokatuko dira, edota, euria bada, Solobarria plazako karpan. Epaimahaia anonimoa izango da, eta, beraz, oso garrantzitsua izango da parte-hartzaileek zenbaki eta koloreak adierazten dituzten oholtxoak ikusteko moduko leku batean eramatea. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira. Zenbait gauza baloratuko dira: originaltasuna, lantzea, eszenaratzea...

Era berean, epaimahaikideek baloratuko dute ea taldeek oinarrietan jasotako baldintzak betetzen dituzten, eta kanporatu egingo dituzte baldintzok betetzen ez dituztenak.

SARIAK

Epaimahai kalifikatzaileak bere balorazioa egin ondoren, honako SARI hauek banatuko dira:

2-8 kideko taldeak		9 kide edo gehiagoko taldeak	
Saria	Euro	Saria	Euro
1. SARIA	550,00	1. SARIA	750,00
2. SARIA	400,00	2. SARIA	500,00
3. SARIA	200,00	3. SARIA	250,00
		INAUTXO	550,00

9 lagun edo gehiagoko taldeen Inautxo Sarian, desfilean zeharreko eszenaratzea bezalako kontuak baloratuko dira (interpretazioa eta/edo girotzea).

Sariak banatzea

Sariak Solobarria plazako karpan banatuko dira, otsailaren 26an bertan, 20:00etan, ekitaldirako antolatutako musika-emanaldian zehar.

2. Haurren mozorro-jantzien lehiaketa

DESKRIBAPENA

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute hala nahi duten haur guztiek. Talde barruko mozorroek koherentzia eta uniformetasuna gorde beharko dute.

**Kategoriak**

- Norbanakoak, eta 2-4 kideko taldeak.
- 5 kide edo gehiagoko taldeak.

Lau kideetik gorako taldeen modalitatean ez dago inolako mugarik taldekideen gehieneko kopuruari dagokionez. Mozorroek, hala ere, koherentzia eta uniformetasuna gorde beharko dute.

Haurren lehiaketa martxoaren 1ean (asteartea) izango da, arratsaldeko 18:00etan, Solobarrian egingo den txiki-diskoan zehar. Epaimahai kalifikatzaileak baloratuko ditu aurretiaz izena eman, eta lehiaketaren unean mozorroa jantzita datozen parte-hartzaile guztiak.

IZENA EMATEA

Lehiaketan parte hartu nahi duten taldeek izena eman beharko dute aurretiaz.

Aurretik, lehiaketa familiarrean parte hartu, eta txikien lehiaketan mozorro berarekin aurkezten diren taldeek eta norbanakoek izen, kontaktu eta arduradun bera izan beharko dute. Bestela, lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Izena emateko tokiak eta ordutegiak

Izena eman ahal izango da jarraian adierazitako toki eta ordutegietan:

- Otsailak 14-25 bitartean:

Kultura	Bidearte, 10	Astelehenetik ostiralera, 08:00-14:00

- Martxoaren 1ean (asteartea):

Horretarako jarritako ETXOLA	Solobarria plaza	15:30-17:30

Izena emateko datuak

- Taldearen izena.
- Zenbat kide.
- Mozorroaren gaia.
- Ordezkararen datuak (izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia, posta elektronikoa).

EPAIMAHAIA

Haurren modalitateko epaimahai kalifikatzailea osatuko dute udalerriko elkarte eta erakundeetako ordezkariek eta arte eszenikoeekin harremana duen Erakundeko ordez-kari batek.

BALORAZIOA

Epaimahaiak honako inguruabar hauek baloratuko ditu, 0tik 10era:

- Originaltasuna.
- Lanketa.
- Antzezpena.

SARIAK

Haur lehiaketako sariak basauriko denda-multzo batean truka daitezkeen txartelak izango dira. Txartel horiek, gehienez ere, lehiaketaren egunetik hilabeteko epean gastatu beharko dira.



Banakoa, 2-4 kideko taldeak		5 kide edo gehiagoko taldeak	
Saria	Euro	Saria	Euro
INAUTXO SARIA (*)	200,00	INAUTXO SARIA (*)	300,00
1. SARIA	200,00	1. SARIA	300,00
2. SARIA	100,00	2. SARIA	200,00
3. SARIA	50,00	3. SARIA	100,00

(*) Aurretik lehiaketa familiarrean (larunbata, hilak 26) mozorro berarekin parte hartu duten umeak ezin izango dira Inautxo Sarira aurkeztu.

Sariak banatzea

Sariak Solobarria plazako karpan banatuko dira, martxoaren 1ean bertan, 19:30ean.

3. SENIORREN MOZORRO-JANTZIEN LEHIAKETA

DESKRIBAPENA

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute hala nahi duten 60 urtetik gorako guztiek: banaka, bikoteka eta hirusak.

Lehiaketa otsailaren 26an (larunbata) izango da, Soloarte Eskolan egingo den dantzaldian.

IZENA EMATEA

— Soloarte Eskola: otsailaren 26an (larunbata), 18:00etatik 18:45era.

EPAIMAHAIA

Senior modalitateko epaimahai kalifikatzaileak, aurretik izena emanda egon, eta lehiaketara mozorroa jantzita datozen parte-hartzaile guztiak baloratu eta puntuatuko ditu. Epaimahaia udalerriko elkarte eta erakundeetako ordezkariak eta arte eszenikoekin harremana duen Erakundeko ordezkari batek osatuko dute.

BALORAZIOA

Epaimahaiak honako inguruabar hauek baloratuko ditu, 0tik 10era.

- Originaltasuna.
- Lanketa.
- Antzezpena.

SARIAK

Epaimahaiak honako Sari hauek banatuko ditu:

Saria	Euro
1. SARIA	250,00
2. SARIA	150,00
3. SARIA	100,00

4. Ostalaritza eta merkataritzako lehiaketa. Hobekien girotutako establezimendua

DESKRIBAPENA

Parte hartu ahal izango dute udalerriko ostalaritza edo merkataritza establezimenduek, erakuslehoak edota lokalaren barrualdea girotu eta atondu nahi dutenek.

Lokaletako eta erakuslehoetako dekorazioa jarrita egon beharko da, gutxienez, 2022ko otsailaren 23tik martxoaren 1era bitartean. Baldintza hori betetzen ez duten establezimenduak lehiaketatik kanporatuak izango dira, automatikoki.

**IZENA EMATEA**

Otsailaren 7etik 21era bitartean. Ez da izen-ematerik onartuko epe horretatik kanpo:

- Basauriko Udalean, Bidearteko bulegoetan: Bidearte kalea 10 (08:00–14:00)
- Mezu elektronikoko bidez, helbide honetara: cultura@basauri.net
- Basauriko Merkatari Elkartera bidalitako mezu elektronikoko bidez: info@basauriko-merkatariak.com

Izena emateko datuak

- Merkataritzea edo ostalaritzea lokalaren izena.
- Ordezkararen datuak (izena, NANA, telefono-zenbakia, posta elektronikoa).
- Lehiaketan parte hartzeko adierazpen espresua.
- Parte hartzen duen merkataritzea- edo ostalaritzea-lokalaren izena.
- Ordezkararen datuak (izen-abizenak, NANA, harremanetarako helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa).

SARIAK

Irabazleek (3, merkataritzea-kategorian; eta beste 3, ostalaritzea-kategorian) diploma bana jasoko dute, eta Karnabasen hurrengo edizioaren irudi izan ahalko dira.

Sariak udaletxeko Bilera Aretoan banatuko dira (data behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko da). Establezimenduak apainduta egon beharko dira martxoaren 1era arte (asteartea), egun hori barne. Horrela egin ezean, Epaimahaiak aukera izango du irabazleari saria kentzeko.

EPAIMAHAIA

Ostalaritzea eta merkataritzako modalitaterako epaimahai kalifikatzailea osatuko dute udalerriko elkarte eta erakundeetako ordezkariek eta arte eszenikoekin harremana duen Erakunde ordezkariek.

5. Beste arau batzuk

1. Parte hartu ahal izango dute edozein motatako talde, elkarte edo erakundeek, eta hala nahi duten herritar guztiek.
2. Ekitaldiak ahalik eta arinenak izan daitezzen, talde bakoitzak ordezkariek bana izen-datuko du, ezarritako arauak betetzea bermatuko duena. Ordezkariek hori taldeek elkartu behar duten tokira joan beharko da, beste taldeetako ordezkariekin batera, erabakitzeko, euria denean, ea desfilea aurrera doan ala ez.
3. Gaia, materialak eta prozedura parte-hartzaileen esku geratuko dira. Mozorroen originaltasuna sarituko da. Ezin izango da jarrera homofobo edo xenofoboak sustatzeko publizitate edo erreferentziarik egin, ez eta lengoaia, irudi edo eduki sexistarik erabili ere; ezingo da, ezta ere, Inauteriak ez diren beste ezer aldarrikatu; eta debekatuta egongo da alkohol edariak edota tabakoa kontsumitzearen aldeko publizitatea egitea.
4. Sari guztiek zerga-atxikipena izango dute, indarreko arautegiaren arabera. Sarien zenbatekoa izen-ematean agertzen den titularrek jasoko dute.
5. Debekatuta dago lehiaketan ondoko hauek erabiltzea: animaliak, argi-zuziak edo garra duten objektuak, pirotekniako elementuak, eta motordun elementuak.
6. Era berean, parte hartzen duen talde bakoitzak bere soinu-ekipoa edo horren parekoa eraman ahal izango du, eta tramankulu gurpildun eta motorrik gabeak ere bai. Ikusle asko egongo direnez, eta segurtasuna bermatze aldera, karpak ezin izango da desfilean zehar erabilitako gurpildun tramankulurik sartu. Karparen inguruetan toki bat atonduko da, tramankulu horiek uzteko.
7. Lehiaketa guztietan epaimahaiak saria eman gabe utz dezake, jotzen badu ez dela behar besteko kalitate-maila lortu.



8. Aipatutako lehiaketetan parte hartzeak baldintza hauek guztiak erabat onartzea dakar. Antolatzaileei dagokie arauon interpretazioari buruzko edozein zalantza argitzea, eta haiek ebatzitakoa behin betikoa eta apelaezina izango da.

9. Desfilean parte hartzen dutenek jaramon egin beharko diete udal-langileek, une oro, emandako argibideei, desfilea arazorik gabe eta ahal bait arinen egin dadin.

Basaurin, 2022 urtarrilaren 17an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren